

**PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

PRESTAKUNTZA-MODULUA	Kolorea ile-apainketan (zeharkakoa)	Iraupena	90
Kodea	MF0348_2		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Ile-apainketako aholkularitza	Iraupena	60
	Ilea moztea (zeharkakoa)		90
	Bizarraren eta bibotearen zainketa (zeharkakoa)		30
	Ile-apaindegietako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetako lanen protokolo teknikoak		40
	Ile-apaindegietan eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetan ilearen forma aldatzea		70
	Irudi pertsonaleko enpresen zuzendaritza eta kudeaketa (zeharkakoa)		60
	Ile-apainketa tekniko-artistikoko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		160

**A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0348\_2: ILE-KOLOREA ERABAT EDO PARTZIALKI ALDATZEA.

**B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**
**Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak**

A1: Bezeroaren ile-kolorea eta ilearen eta buru-larruazalaren egoera aztertzea, haren eskaera, behar eta ezaugarrietara ondoen egokitzen den ile-kolorearen aldaketa, erabatekoa edo partziala, egitea erabakitzeke.

EI1.1 Ile-kolorea aldatzeko teknikak deskribatzea, teknika bakoitzak dituen abantailak eta eragozpenak azalduz.

EI1.2 Iragazkortasun-maila, malgutasuna, ile urdinen proportzioa eta ilearen oinarritzko kolorea zehazteko erabiltzen diren irizpideak zerrendatzea eta azaltzea.

EI1.3 Ilean kolorazio naturala eta tonu-eskala azaltzea.

EI1.4 Ile naturalaren eta ile tindatuaren eta koloregabetuaren arteko desberdintasunak azaltzea.

EI1.5 Distira-motak eta haiek oinarritzko tonuetan duten eragina deskribatzea.

EI1.6 Ile-kolorazioko aldaketak egin aurretiko eragiketa teknikoak azaltzea, eragiketa bakoitza zer kasutan aplikatu behar den adieraziz.

EI1.7 Ile-kolorazioa aldatzeko prozesuak zehazteko kasu praktikoetan:

- Tonu naturala eta/edo tindatua eta ilearen distirak sailkatzea, ohiko kolore- eta tonu-eskalan.
- Ile urdinen ehuneko kalkulaztea.
- Ileo eremuen tonuen eta lortu nahi den tonuaren arteko desberdintasuna zehaztea.
- Kolorazioaren aurretik eragiketa teknikoak egitea beharrezkoa den ala ez hautematea, eta, behar izanez gero, zein diren hautematea.

A2: Ilea, bekainak, bizarra eta bibotea erabat edo partzialki koloratzeko edo koloregabetzeko tresnak, osagarriak eta kosmetikoak aukeratzea eta prestatzea.

EI2.1 Tinduak konposizioaren, iraupenaren, helburuaren eta jatorriaren arabera sailkatzea.

EI2.2 Kasu praktiko batean, alderdi hauek kontuan hartuta aukeratzea kolore-kosmetikoak:

- Ile eta eremu desberdinetarako —ilea, bekainak, bizarra eta bibotea— indarrean dagoen legediak baimendutako tindua.
- Pertsonaren estiloa, adina eta bizimodua.
- Lortu nahi den emaitza, efektua eta iraupena.

EI2.3 Kolore-aldaketako prozesuetan —kolorazioan eta koloregabetzean— behar diren tresnak eta osagarriak zerrendatzea.

EI2.4 Lortu nahi den kolorearentzako tonurik egokiena zein den erabakitzea.

EI2.5 Distira bezeroaren eskaeren arabera erabakitzea, eta larruazal- eta begi-koloreekin harmonizatzea.

EI2.6 Distirak emateko ile-apainketako teknikak azaltzea.

EI2.7 Tindaketaren aurreko teknikak zer kasutan aplikatu behar diren deskribatzea.

EI2.8 Kolore-aldaketa bat egiteko kosmetikoak prestatzeko kasu praktiko batean:

- Tonu bat lortzeko produktua edo produktu-nahasketa zehaztea.
- Hidrogeno peroxidoaren diluzio bat egitea.
- Produktu dekolorazailak nahastea, lortu nahi den dekolazio-maila kontuan hartuta.

EI2.9 Behin erabili eta botatzeko materiala segurtasun-baldintzak betez botatzea, ingurumena behar bezala kontserbatzeko ezarritako protokoloari jarraituz.

A3: Protokoloa egokitzea eta ile-kolora erabat edo partzialki aldatzeko teknikak aplikatzea, bezeroaren ezaugarrietara eta eskaeretara egokituz.

EI3.1 Aplikatu beharreko teknika eta kosmetikoak aukeratzea, kontuan izanda ilearen ezaugarriak eta ile-kolorearen aldaketarekin lortu nahi den emaitza.

EI3.2 Profesionala eta bezeroa babesteko neurriak deskribatzea.

EI3.3 Aukeratutako teknikak hala eskatzen duenean —aldi baterako kolorazioa eta erdiiraunkorra—, behar bezala koloratzea eragotziko duten ile-egokitzailerik ez erabiltzea bezeroaren ilea garbitzean.

EI3.4 Produktuak ondo nola ematen diren azaltzea, kolorazioan eragiten duten parametroak kontuan izanda: produktu-mota, ilearen iragazkortasuna, ile urdinak, ile-sustraien eta ile-punten arteko desberdintasunak....

EI3.5 Ile-kolora aldatzeko kasu praktiko batean:

- Tresna, osagarri eta produktu egokiak aukeratzea.
- Lortu nahi den emaitzara egokitutako teknika aukeratzea.
- Erabiliko den teknikaren eskakizunen arabera kokatzea eta babestea bezeroa.
- Produktu koloratzaileen eraginpean dauden bezeroaren larruazalaren guneak baliabide egokiekin babestea, larruazaleko narritadurak eta orbanak saihesteko.
- Behar izanez gero, kolorazioaren aurretik teknikak aplikatzea; adibidez, geruzak kentzea, aurrekolorazioa edo aurreoxidazioa.
- Hala badagokio, produktuak nahastea, tarteko tonu bat lortzeko edo oxidazio bidezko tindua lortzeko.
- Tindatzeko zailtasun handienak dituzten guneetatik hastea produktua ematen.
- Kolorazio-prozesuari behatzea, eta denbora kontrolatzea.
- Kosmetiko koloratzaileen hondarrak xanpu egokia erabiliz kentzea, eta ilea egokitzea.

EI3.6 Ile-kolorazioa partzialki aldatzeko kasu praktikoetan, modeloak behar bezala zehaztuak izanik, hauek aukeratzea:

- Teknika: txanoa, zilarra, orrazia, ile-sustraietan ukituak ematea eta beste batzuk.
- Mota: kolore bakarrekoa, bi kolorekoa, hiru kolorekoa eta beste batzuk.

EI3.7 Bizar, bibote eta bekainen ile-kolora aldatzeko kasu praktikoetan:

- Bezeroa babestea eta posizio anatomiko egokian kokatzea, koloratzaileek bereizketarik gabe jardutea saihesteko eta istripu-arriskuak minimizatzen.
- Koloratzaileekiko sentikortasun-proba kondizio egokietan egitea —aplikazioari, denborari eta zainketei dagokienez—, eta lortutako emaitzak baloratzea.
- Produktu kosmetikoak behar diren eragiketa fisiko-kimikoak eginez eta fabrikatzailearen argibideei erreparatuz aukeratzea eta prestatzea.
- Tresna espezifikokoak trebetasunez erabiliz ematea produktuak.
- Produktuek bizar-, bibote- eta bekain-ilean izan beharreko jarduera-denbora zehaztea eta kontrolatzea.

A4: Dekolorazio oso edo partzial baten protokoloa egokitzea ile-kolora aldatzeko, eta teknika gainbegiratzea edo aplikatzea, bezeroaren ilearen ezaugarriak eta haren eskaerak kontuan izanda.

EI4.1 Bezeroa jantzi egokiekin babestea, orbanak saihesteko.

EI4.2 Oxidatzailearen kontzentrazioa ilearen egoerara eta koloregabetu nahi den tonu-diferentziara egokituta zehaztea, eta produktu dekolortzailearen diluzioa prestatzea.

EI4.3 Produktu dekolortzailea eta azeleratzailea fabrikatzaileak adierazitako proportzioetan nahastea, lortu nahi den dekolortzaile-maila kontuan hartuta.

EI4.4 Dekolortzailea ile naturalean edo tindatuan ematean, kontuan izatea dekolortzaile-efektua erabatekoa edo partziala den.

EI4.5 Modeloaren ilea erabat koloregabetzeko kasu praktiko batean:

- Ilea bereiztea, produktua homogeneouski banatzeko. Hainbat tonutako dekolortzailea lortu nahi bada, dekolortzailea ile-sorta meheak hartuz ematea, erabat bustitzea, garbitzea eta, gero, produktua ile-sustraietan ematea.
- Tonu-desberdintasun txikia lortu nahi bada, nahasketa modu orokorrean ematea.
- Nahasketa ile-sustraietan ematea, ilea aurrez koloregabetu eta modu naturalean hazi delako ukitu bat eman nahi bada.
- Dekolortzaile-prozesua kontrolatzea, nahi den tonua lortu arte.
- Bero lehorra edo hezea jartzea, esposizio-denbora murriztu nahi bada, betiere bezeroaren buru-larruazalean kalterik egin gabe eta hura sentsibilizatu gabe.
- Uretan ondo garbitu eta koloratzailea gehitzea, gero koloratu egin behar bada.

EI4.6 Modeloaren ilea partzialki koloregabetzeko kasu praktiko batean:

- Lortu nahi den efektua kontuan izanda, osagarri egokiak aukeratzea.
- Dekolortzaileak dagokien proportzioan nahastea, lortu nahi den kolorazio-maila kontuan izanda.
- Dekolortzaileen nahastea aukeratutako osagarriak erabiliz eta higiene- eta segurtasun-kondizioetan ematea.
- Bero-iturria aukeratzea, ilearen egoerak horretarako aukerarik ematen badu.
- Dekolortzaile-prozesua kontrolatzea eta koloregabetu diren guneetako produktua kentzea, lortu nahi den tonua izan arte.
- Produktu koloratzailea nola eman behar den azaltzea, dekolortzailearen ondoren izango den tonua argitu nahi bada edo koloregabetutako guneak beste tonu batekin tindatu nahi badira.
- Produktu-hondarrak xanpu egokiarekin kentzea, eta egokitzaile bat ematea.

A5: Ilea kolorez aldatzeko prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzea, eta emaitzak aurreikuspenetara egokitzeke egin beharreko aldaketak proposatzea.

EI5.1 Kolore-aldaketaren azken emaitza aztertzea, eta zerbitzuaren kalitatea zehazteko prozesuko zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea.

EI5.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari eta profesionalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoekin galdetegiak egitea.

EI5.3 Ematen den zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak identifikatzea.

EI5.4 Emandako zerbitzuan aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak aztertzea, eta haien kausak detektatzea.

EI5.5 Ilea-kolorea aldatzeko zerbitzua ebaluatzeko kasu praktiko batean:

- Ilea-kolorazioa aldatzeko prozesuetako kalitate-adierazleak identifikatzea.
- Aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak identifikatzea, eta desbideratzeen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak arrazoitzea. Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeke neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI5.6 Prozesuko gorabeherak bezeroaren fitxan jasotzea, hurrengo zerbitzuan kontuan izateko.

## Edukiak

### 1. Ilea kolore naturala.

- Ilea kolore naturala: melaninak.
- Ilea pigmentu natural motak.
- Ilea-kolorean eragiten duten faktoreak:
  - Genetikoa
  - Adina
  - Eguzkia
  - Hormonak
- Ilea kolore aldaketako prozesuetan duten eragina.
  - Jatorri genetikoko kolore aldaketak: rutilismoa, Heterokromia
  - Jatorri genetikoko dekolore aldaketak: albinismoa, flabismoa, buruzuritasuna.
- Kolorearen teoria eta ile-kolorazioa aldatzeko prozesuetan duen eragina:
  - Argi-kolore eta pigmentu-kolore.
  - Kolore primarioak, sekundarioak eta osagarriak, eta haien aplikazioa ile-apaintzeko kolore-aldaketako prozesuetan.
  - Tonuen eskala.
  - Asetasuna.
  - Distira.
  - Harmonia eta kontrastea.
  - Distirak: motak, distiren garrantzia tindaketan.
- Ilea kolore aldaketak, eta kolore-aldaketekiko erlazioa:
  - Buru-larruazalaren egoera: ilearen sentikortasuna, ilearen dentsitatea.
  - Ilea kolore aldaketak: ile birjinak, ile tindatuak, lodiera, testura, iragazkortasun-maila, beste batzuk.
- Larruazalaren kolorearen eta fisonomiaren azterketa, eta ile-kolorearen aldaketekiko erlazioa.

### 2 Kosmetikoak aukeratzea eta prestatzea kolore-aldaketetarako: koloraziorako.

- Tinduak jatorriaren eta konposizioaren arabera aukeratzea:
  - Landare-tinduak
  - Tindu metalikoak
  - Tindu begetal-metalikoak
- Tinduak iraunkortasunaren arabera aukeratzea:
  - Aldi baterako koloraziorako tinduak.
  - Tindu erdiiraunkorrak.
  - Oxidazio bidezko tinduak.
- Kolore-aldaketetarako prozesuetan maiz erabiltzen diren produktuak eta substantziak.
- Hauen kolore-aldaketetarako kosmetikoak:
  - bekainak, bizarra eta bibotea;
  - ileordeak eta ile-eranskinak.
- Egin nahi diren aldaketetarako produktuak aukeratzea.
- Kolore-aldaketetarako produktu kosmetikoak prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak.
  - Produktuak prestatzeko eta erabiltzeko argibideak.
  - Jarduera-mekanismoak, efektuak eta kontuan hartu beharrekoak.
- Ilea-kolorazioa aldatzeko prozesuetan erabiltzen diren kosmetiko babesleak:

- Aukeratzeko irizpideak, eta behar bezala erabiltzeko, aplikatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak.

### 3 Kosmetikoak aukeratzea eta prestatzea kolore-aldaketetarako: dekoloraziorako.

- Dekoloraziorako eta mordentatzerako kosmetikoak aukeratzea: oxidatzaileak eta azeleratzaileak.
- Oxidatzaileak ematea: ur oxigenatuaren diluzioa eta nahasketak. Kontuan eduki beharrekoak, kontserbazioa eta biltegiatzea.
- Tolerantzia-proba: proba egiteko jarraibideak eta irizpideak.
- Egin nahi diren aldaketetarako produktuak prestatzea:
  - Produktu kosmetiko dekoloratzaileak prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak.
  - Koloregabetzeko produktuak prestatzeko eta erabiltzeko argibideak.
  - Jarduera-mekanismoak, efektuak eta kontuan hartu beharrekoak.
- Ilea produktu kosmetiko dekoloratzaileen eraginpean egon behar duen denbora.

### 4 Kolore-aldaketetarako aparatuak eta tresnak prestatzea eta maneiatzea.

- Kolore-aldaketetarako kosmetikoak emateko tresnak: orraziak, pintzelak, tindu-eskuilak, arrasteluak, ontziak eta bestelakoak.
- Kolorez aldatzeko teknikan aplikatzeko aparatu elektrikoak. Beroa aire bidez edo aierik gabe sortzen duten aparatuak: lehorgailuak, infragorriak, klimazioa eta bestelakoak.
- Maneiatzea, erabiltzea, garbitzea, desinfektatzea eta kontserbatzea.

### 5 Kolorez aldatzeko teknikak aukeratzea.

- Aldi baterako kolorazio-aldaketak: aplikatzeko teknika eta kontuan izan beharrekoak.
- Kolorazio-aldaketa erdiiraunkorrak: landare-koloratzaileak, koloratzaile metalikoak, zuzenak eta tonua bata bestearen gainean jartzekoak. Aplikatzeko eta prestatzeko teknika eta kontuan izan beharrekoak.
- Kolorazio-aldaketa iraunkorrak: oxidazio-koloratzailea eta oxidatzailea aukeratzea. Aplikatzeko eta prestatzeko teknikak eta kontuan izan beharrekoak.
- Kolorazio-estiloak: kolore bakarrekoa, bi kolorekoa, hiru kolorekoa, pertsonalizatuak eta bestelakoak.
- Dekolorazioaren oinarriak.
- Nahaste baten koloregabetzeko gaitasuna: dekolorazio-mailak.
- Ilea-kolorea aldatzeko prozesuek ilean duten eragina.
- Kolorez aldatzeko prozesuetako azken joerak.

### 6 Kolorez aldatzeko teknikak aplikatzea.

- Kolore-aldaketetako prozesuen protokoloak berrikustea.
- Aldi baterako koloraziorako eta kolorazio erdiiraunkor eta iraunkorretarako teknikak.
- Ilea koloratu aurretiko teknikak:
  - Sentikortasun-proba.
  - Dekolorazioa.
  - Geruzak kentzea.
  - Pigmentatzea.
  - Mordentatzea.
- Kolorazio eta dekolorazio partzialeko teknika: aplikatzeko jarraibideak eta kontuan izan beharrekoak.
  - Ilea-sustraietako ukituak ematea.
  - Metxak: txanoarekin, aluminiozko paperarekin, orraziarekin, arrasteluarekin, paper gardenarekin, beste batzuk.
  - Kolore-ukituak.
  - beste batzuk.
- Kolorazio eta dekolorazio osoko teknikak.
- Ilea birjinen gainean aplikatzea: Argitzea. Iluntzea. Ukituak ematea.
- Ilea-erandien eta ile-erandien kolorea aldatzeko prozesura espezifikoak.
- Kolore-aldaketetako prozesuen protokoloak egokitzea.
- Kolorea aldatzeko prozesuetako segurtasuna eta higieina.
  - Norbera babesteko profesionalen neurriak: Jantzera. Lanerako gomendatutako jarrera-higieina.
  - Kolore-aldaketetako prozesuetako bezeroa babesteko neurriak: kolorazio-aldaketetako prozesuetarako gomendatutako jarrera, Jantzera.
- Lehen laguntza kolore-aldaketetako prozesuetatik eratorritako arriskuei aplikatuta.

### 7 Ilea-kolorazioa aldatzeko prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Ilea-kolorazioa aldatzeko prozesuen kalitatea definitzeko parametroak.
- Lortutako emaitzetako desbideratzeak zuzentzeko neurriak.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko neurriak aztertzea.
- Egin beharreko eragiketa teknikoak zehaztea.
- Emaitzak aurreikusitakora egokitzeko ile-kolorazioa aldatzeko eragiketa teknikoak gauzatzea.

**C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa tekniko-artistikoa.